



Astelehena, 2015-01-26

hitza Info
Urola Kostako albisteak

Nabigazioa ☰

“Agertutako begirunea” eskertu du Jose Luis Sanchez Sirvent ‘Joe’ ostalariak, Zarauzko Sagardo Egunean

by **Urola Kostako Hitza** on 2015/01/24 in **BESTELAKOAK**



Aurten ere jende ugari bildu da Musika Plazan, sagardoaz eta idi txuleta pintxoez gozatzen. Eguerdialdean egin diote Jose Luis Sanchez Sirvent *Joe* ostalariari omenaldia urte luzetan egindako lanagatik. Gustura agertu da hori, “pixka bat emozionatuta”. Bera “aintzat hartu izana” eskertu die Zurekin Zarauzko ostalari elkarte kideei, eta bezeroak ere gogoan izan ditu. *Joe*-ri oroigarria eman ondoren ekin diote festari.

Bertaratu direnek zortzi sagardogilek ekoizitako edaria dastatzeko aukera izan dute: Aburuza (Aduna), Aginaga (Usurbil), Iparragirre (Hernani), Izeta (Aia), Lizeaga (Astigarraga), Petritegi (Astigarraga), Saizar (Usurbil), Satxota (Aia) eta Urdairarena (Usurbil), hain zuzen. Hori laguntzeko, Gesalaga harakinaren idi txuleta pintxo ederrak ere izan dituzte aukeran.



BERRI HONEKIN LOTUTA:

- [Jose Luis Sanchez Sirvent ‘Joe’ ostalaria omendu dute Zarauzko Sagardo Egunean](#)

◀ Jose Luis Sanchez Sirvent ‘Joe’ ostalaria omendu dute Zarauzko Sagardo Egunean

Sahararako elikagaiak biltzen jardun dute Zarautzen ▶